



Donibane enparantza, 1
Tel.: 946279006
Faxa: 946279117
48380 AULESTI (Bizkaia)
e-mail: idazkaritza.aulesti@bizkaia.org

AULESTIKO UDALA

EKONOMI JARDUEREN GAINEKO ZERGAREN ORDENANTZA ARAUTZAILEA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua

Udalak honako ordenantza honen arabera eskatuko du Ekonomi Jardueren gaineko Zerga Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan eta Zergari buruzko Foru Arauan ezarritakoarekin bat etorritz.

2. artikulua.

Ordenantza hau udal barruti osoan aplikatzen da.

II. ZERGA EGITATEA

3. artikulua.

1. Zerga egitatea Aulestiko udalerrian enpresa, lanbide edo arte jardueretan aritzea da, lokal jakin batean egin zein ez, eta zergaren tarifetan zehaztuta egon zein ez.
2. Zerga honen ondoreetarako, jardueratzat joko dira abeltzaintzako jarduerak, izaera independentea daukatenean, baita meatzaritzakoak, industriakoak, merkataritzakoak eta zerbitzugintzakoak ere. Beraz, ez dira multzo horretan sartzen nekazaritzako jarduerak, inoren menpeko abeltzaintza jarduerak, basogintzakoak eta arrantzakoak, eta horietatik bakar bat ere ez da zerga egitatea.
3. Aurreko lerroaldian oharmandakoaren ondorioetarako, hurrengo kasuetariko baten barruan egon daitezen abelburu-taldeak joko dira izera independenteduntzat:
 - a) Abereen jabeak nekazaritza edo basogintza bidez ustiatu ez ditzan lurretan batez ere bazkatu dadina.
 - b) Landalur eremuetatik kanpo kortaratutakoak.
 - c) Ibiltari edo lekuz aldakorra dena.



Donibane enparantza, 1
Tel.: 946279006
Faxa: 946279117
48380 AULESTI (Bizkaia)
e-mail: idazkaritza.aulesti@bizkaia.org

AULESTIKO UDALA

- d) Batez ere hazitako tokiaz kanpotik ekarritako pentsuez bazkatutakoa.

4. Artikulua

1. Jarduera batean, ondasun edo zerbitzuen ekoizpen edo banaketan eskusartzeko xedez, norbere kabuz ekoizpen eta giza baliabideak antolatzen badira, jarduera hori enpresa, lanbide edo artejitezkoa dela eritziko da.
2. Kargaturiko jardueren edukina zergaren tarifetan zehaztuko da.
3. Kargaturiko jardueretan aritzea zuzenbidean onargarri izan dadin edozein modutatik frogatuko da, eta, bereziki, Merkatal Kodeko 3. artikuluan ohartarazten direnetatik.

III. MENPEKOTASUN EZA

5. artikulua

Ondorengo jardueretan aritzeari ez zaio egitate ezargarri eritziko:

1. Enpresen aktibo finkokoak izan eta, besterenganatu baino bi urte lehenagotik, ibilgetu horretan behar bezala inbentariaturik egon diren ondasunak besterenganatzea, eta saltzailearen berezko eta berebiziko erabilerazko ondasunen salmenta, baldin eta denboraldi berberetan erabili bazituen.
2. Lan pertsonalen edo lanbide zerbitzuen ordain jasotako ekoizkinen salmenta.
3. Establezimendua apaindu edo edertze xede hutsezko artikulua erakustea. Bezeroentzat opari moduko artikulua erakustea, aldiz, zergari loturik egongo da.
4. Txikizkako salmenta denean, egiketa bakar bate do bakarreko eragiketa egitea.

IV. SALBUESPENAK

6. artikulua

1. Honako hauek egongo dira zergatik salbuetsita:



Donibane enparantza, 1
Tel.: 946279006
Faxa: 946279117
48380 AULESTI (Bizkaia)
e-mail: idazkaritza.aulesti@bizkaia.org

AULESTIKO UDALA

- a) Estatua, Eusak Herriko Autonomi Elkarte, Lurralde Historikoa eta Toki Erakundeak, hala nola berauen administrazio izaerazko Organismo Autonomoak.
 - b) Nazioarteko itun edo hitzarmenen indarrez, salbuespena aplikagarri zaien subjeto pasiboak.
 - c) Gizarte Segurantzaren eta legerian aurreikusitakoaren arabera eratutako Mutualitate eta Montepioen Erakunde kudeatzaileak.
 - d) Ikerketa alorreko organismo publikoak eta Estatu, Euskal Herriko Autonomi Elkarte, Kondaira Lurraldeko Foru Aldundi edo Toki Erakunde edo ongintzazko nahiz erabilgarritasun publikokotzat aldarrikaturiko Fundazioen diruen pentsutan zeharo finantzaturiko edozein mailatako irakastegiak, irakaskuntzara destinatutako lantegietan ateratako ekoizkinak, salbuespenez soilik, establezimenduan bertan saltzen badira ere, baldin eta salmentaren zenbatekoa, ezein norbanako ez eta inorentzat ere izan gabe, lehengaiak erosteko edo establezimenduari eusteko soil-soilik erabiltzen bada.
 - e) Gorputz, adimen eta zentzumen urrikoen aldeko irabazte xederik gabeko Elkarte eta Fundazioak, ezinduen irakaskuntza, hezkuntza, birgaikuntza eta babeserako egin ditzaten pedagogia, zientzia, sorospen eta enplegu jarduerengatik, horretarako erabilitako lantegietan ateratako ekoizkinak saltzen badituzte ere, baldin eta salmenta horren zenbatekoa, ezein norbanako ez eta inorentzat ere izan gabe, lehengaiak erosteko edo establezimenduari eusteko soil-soilik erabiltzen bada.
 - f) Gurutze Gorria eta Lurralde Historikoko xedapen bidez zehaztuko diren bestelako entitate parekagarriak.
2. Aurreko ataletako d) eta e) hizkietan araupetzen diren onurek mesedezko izaera izango dute eta, kasua denean, doakionak eskatuta emango dira.

V. SUJETU PASIBOAK

7. artikulua

Lurralde Historikoko Zergetako Foru Arau Orokorreko 33. artikuluan aipatzen diren persona fisiko eta juridikoak eta Entitateak izango dira zerga honen



Donibane enparantza, 1
Tel.: 946279006
Faxa: 946279117
48380 AULESTI (Bizkaia)
e-mail: idazkaritza.aulesti@bizkaia.org

AULESTIKO UDALA

sugetu pasibo, baldin eta egitate ezargarriaren sorburu diren jardueretakoren bat udalerrian egiten badute.

VI. ZERGA KUOTA

8. Artikulua

Zerga kuota izango da zergaren tarifak foru arau honetan eta berau osatzen eta garatzen duten xedapenetan adierazitakoaren arabera eta foru arauetan eta ordenantza fiskaletan zein honako ordenantza honetan ezarritako koefizienteak, indizea eta hobariak aplikatuz sortzen den emaitza.

9. Artikulua

Zergaren tarifak apirilaren 30eko 1/1991 Araugintzako Foru Dekretuan ezarritakoak izango dira.

Tarifa horiei I. eranskinean ezarritako ponderazioko koefizientea ezarriko zaie.

10. Artikulua

Zerga honen ordainpean dauden jarduerak burutzen diren toki edo establezimenduen egoera fisikoa neurtzeko, ordenantza honekin bat etorriz, II eranskinean adierazten diren taularen indizeak, bide publikoaren mailaren arabera aplikatuko zaie gehitutako zergei.

11. Artikulua

Indizeen taula aplikatzeko aurreikusten diren ondorioetarako, II. eranskinean zehazten diren mailatan sailkatzen dira bide publikoak.

Taulan adierazita agertzen ez diren bide publikoak azken mailakotzat hartuko dira, Udalbatzak dagokion maila onartzen duen hurrengo urteko urtarrilaren 1a arte horrela jarraituko dutelarik.

12. Artikulua



Donibane enparantza, 1
Tel.: 946279006
Faxa: 946279117
48380 AULESTI (Bizkaia)
e-mail: idazkaritza.aulesti@bizkaia.org

AULESTIKO UDALA

Gehitzearen koefizientea eta ezarritako egoera indizeak ez dira aplikatuko ez kuota probintzialesi ezta Foru Gainordainari ere.

VII. ZERGALDIA ETA SORTZAPENA

13. artikulua

1. Zergaldia urte naturalarekin bat dator, alta aitortpenak direnetan salbu, orduan jardueraren hasiera egunetik urte naturalaren bukaerainokoa izango bait da, artikuluko honen 3 zenbakiak ezartzen duenaren kaltetan gabe.
2. Zergaldiko lehenengo egunean sortzen da zerga eta kuotak murriztezinak izango dira, alta urtekoa ez bada salbu, kasu horretan kuoten kalkulua jardueraren hasiera-egunetik abenduaren 31ra arteko egun kopuruaren heinean egingo bait da.
3. Baja aitortpenean, berriz, zergaldia urtarrilaren lehenengotik baja aitortpena aurkez dadin egunerartekoa izango da. Kasu honetan zergaren sortzapena ezarraldiko lehenengo egunean gertatzen da, eta kuotaren kalkulua urtarrilaren lehenengotik baja aitortpena aurkeztu arteko hilabete zenbatekoaren heinean egingo da.
Jarduera hasiera egunetik baja aitortpenara bitartean berezko urte bat igaro ez bada, zenbaki honetan adierazitako ez da aplikagarri izango. Kasu honetan baja eguna jardueraren hasiera egunetik hasita berezko urtea betetzearainoko egunera aldatuko da.
4. Ikuskizunak direnetan, kuotak banakako jarduketetarako finkaturik badaude, sortzapena bakoitza egiterakoan gertatzen da, horretarako, dagozkion aitortpenak aurkeztu beharko dituzte beharrezko direlarik.

VIII. ZERGAREN KUDEAKETA

14. Artikulua

1. Zergaren kudeaketa bere matrikulatik abiatuta egiten da. Matrikula hori urtero egingo da eta ekonomi jardueren, subjeto pasiboen, zerga horren eta, hala izanez gero, foru ginkarguaren zentsuez osatuta egongo da. Matrikula hori jendearen esku egongo da.
2. Sujeto pasiboek dagozkien aitortpenak aurkeztu beharko dituzte beharrezko elementu guztiak adieraziz, aurreko zatian ezartzen denaren arabera matrikula



Donibane enparantza, 1
Tel.: 946279006
Faxa: 946279117
48380 AULESTI (Bizkaia)
e-mail: idazkaritza.aulesti@bizkaia.org

AULESTIKO UDALA

barruan sartzeko, ondoren, Udal Administrazioak, dagokion kitapena egingo du, sujetu pasiboari honen berri emango zaiolarik, berorrek, behar den diru-sartzea egin dezan.

Halaber, sujetu pasiboek zergapeko jardueretan aritzean gertatu eta zerga honen ordainketa eragina izan dezaten aldaketa fisiko, ekonomiko edo juridikoen berri eman beharko dute.

3. Tributu ikuskaritzaren jarduketan edo altak eta jakinerazpenak aurkeztearen ondorioz, zentsu horietan egin dadin datu-gaineratze, kentze edo aldatzeari administrazio egintza eritziko zaio, eta zentsuaren aldaketa ekarriko du. Zentsuetan dauden datuei buruz matrikulan edozein aldaketa egiteko, datuen aldaketa egin beharko da aurretik haietan, ezinbestez.
4. Norberaren kitapen modura exijitu ahal izango da zerga hau.

15. Artikulua

1. Kudeaketa, kitapena, ikuskapena eta bilketa ahalmenak, bai borondatezko epean baita premiabidez ere, Udal Administrazioarenak dira.
2. Udal honi dagokio bereziki, matrikula jendaurrean jartzea, ordain-agiriak egitea, errekurtsio eta eskariak ebatzea, zerga kobratzea, salbuespenak eta zerga-hobariak aplikatzea eta zerga honi dagokion guztian ordaintzen duenari laguntza eta informazioa ematea.
3. Udalak eta Foru Aldundiak zergaren matrikula egiteko eta mantentzeko elkarrekin egingo dute lan, hala nola, jarduera ekonomikoak kalifikatzean eta dagokion kuotak ezartzean.
4. Salbuetsiak ematea eta ezeztatzeak, edozein kasutan ere, Foru Aldundiaren aurre txosten teknikoak eskatuko du, hartzen den ebazpenaren berri, ondoren, emango zaiolarik.
5. Artikulu honen 1 zenbakian agintzen denaren arren, Foru Aldundiari dagozkio bertan adierazten diren ahalmenak, zerga probintzialesi eta bereziei dagokionetan.

16. Artikulua

Kudeaketa, kitapena, bilketa eta ikuskapen ahalmenak Foru Aldundiari utzi diezaizkioke, Udalbatzak agindutako modu, eduki eta irispidetan, horretarako hitzarmena izenpeturik.



Donibane enparantza, 1
Tel.: 946279006
Faxa: 946279117
48380 AULESTI (Bizkaia)
e-mail: idazkaritza.aulesti@bizkaia.org

AULESTIKO UDALA

IX. XEDAPEN IRAGANKORRA

Zerga honen aplikazioa hasten den datan Merkatal eta Industria Jardueretako Lizentzia Fiskalean edo Profesional eta Artisten Jardueren Lizentzia Fiskalean edonolako hobari fiskala dutenek, horretaz baliatzen segituko dute bukatze datara arte eta, gozamina bukatzeko datarik ez balute, 1993ko abenduaren 31ra arte, egun hori barne.

X. AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau bere I eta II eranskinekin batera, onartu zen behin behingoz, eta 1992ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean eta horrela jarraituko du aldatzea edo indargetzea erabakitzen den artean. (Bizkaiko Adizkari Ofizialean argitaratuta 1992/06/12an)

I. ERANSKINA

Finkatutako gutxiengo kuotak gehitzeko biderkari bakara: 1,15

II. ERANSKINA

Udal barrutiko bide publikoen sailkapena: 1